

Euskara eskualdean

Ezagutza

Nafarroan udalerriz udalerrri euskararen ezagutzaz ditugun azkeneko datu ofizialak 2001. urtekoak dira. Horren ondoren egindako errolda eta zentsuetan laginak txikiagoak izan dira eta ezagutarazi diren datu ofizialetan udalerrri bat baino gehiago bildu dira, eta eskualdeka eman dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren 2018ko argitalpen batean (*Nafarroako datu soziolinguistikoak 2018*), Nafarroa gune soziolinguistikoaren arabera antolatzeko, 2011ko zentsutik hartutako datuen gainean udalerriz udalerriko *erreferentzia balio bat* eman zen eta, kasu horretan, udalerrri bakoitzari dagokion ezagutza tasa ikus daiteke. Nolanahi ere, eta arestian esan den moduan laginak oso txikiak zirenez, udalerriz udalerrrikako datu horiek oso tentuz hartzekoak dira, batez ere herri txikien kasuan. Gure eskualdean, herri guztiak edo gehienak halakoak dira.

Datuen irakurketak behar dituen ñabardura guztiak kontuan hartuta ere, eta 2001ekoek eta 2011koek duten fidagarritasun maila ez dela berdina gogoan izanda ere, badirudi euskararen ezagutzan nolabaiteko jaitsiera dagoela. Oro har ez da oso-osoa handia, baina bai behintzat kontuan hartzeko modukoa. Eskualdeko udalerrietan 0,3 eta 10,1 puntu bitarteko aldea agertzen da ezagutzari dagokionez, eta hiru udalerriren kasuan izan ezik, gainerako guztietan alde hori galera da.

Euskararen ezagutzan irabazia erakusten duten hiru udalerrri horietatik bi, hain zuzen ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan erdaldunenak dira. Joera hori, alegia, herri euskaldunenetan ezagutzak zertxobait behera egitea eta herri erdaldunenetan gora, Euskal Herriko beste zenbait lurraldetan ere antzera gertatzen ari da azkeneko urteotan.

Hauek dira, taula batean jasota, 2001eko eta 2011ko zentsuetatik euskararen ezagutzari dagokionez ateratako datuak. Gogoratuko dugu berriz, nolanahi ere, 2011koak tentu handiz hartu behar direla eta fidagarritasun maila askoz txikiagoa dela.

	2001	2001	2001	2011	2001-2011 bitarteko aldea
	Euskaldunak (%)	Ia- euskaldunak (%)	Erdaldunak (%)	Euskaldunak (%)	Euskaldunak %
Araitz	93,5	4,5	2,1	88,4	-5,1
Arano	87,2	7,5	5,3	81,5	-5,7
Areso	92,2	6,7	1,1	91,9	-0,3
Basaburua	72,8	18	9,2	67,2	-5,6
Betelu	89,3	3,7	7,1	81,1	-8,2
Goizueta	94,8	3,8	1,4	-92,1	-2,7
Imotz	59,5	19,5	21	53,2	-6,3
Larraun	84,6	9,5	5,9	85,4	+0,8
Leitza	91,2	3,8	5,1	83,2	-8,0
Lekunberri	59,2	23,2	17,6	56,5	-2,7
Odieta	25,1	23,8	51,1	35,2	+10,1
Ultzama	45,1	28,7	26,1	47,6	+2,5

Sarreran esan dugun moduan Mankomunitatea oso zabala da eta, taulan ikus daitekeenez, herrien artean alde nabarmenak daude. Esan liteke, nolahi ere, oso eskualde euskalduna dela gurea. Izan ere, Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea osatzen duten 12 udalerrietatik 7tan populazioaren % 80tik gora euskalduna da (Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun eta Leitza). Hiru udalerritan (Imotz, Basaburua eta Lekunberri) % 50etik 80rako tartean daude. Beste batean (Ultzama) % 50aren inguruan dabil euskaldunen ehunekoa, eta gainerakoan (Odieta), % 35aren inguruan.

Mankomunitatearen lurraldea hartuta, hego-ekialdean kokatutako eskualdeak dira, Iruñetik hurbilen daudenak hain zuzen ere, ezagutza-indizerik baxuenak erakusten dutenak: Ultzama eta Odieta. Horiek dira, maila guztietan, eskualdeko generik erdaldunenak. Gainerako udalerriek, Mankomunitatearen zatirik handiena eta populatuena, ezagutzari dagokionez nahikoa inguru euskalduna eta trinkotua osatzen dute.

Eskualdeko herri gehienak, horrenbestez, oso euskaldunak dira, eta eskualdeko biztanle gehienek euskaraz ongi hitz egiten dute. Ahozko gaitasunari dagokionez euskaldun gehienak ongi moldatzen diren arren, idatzizko gaitasunari buruzko datuak, ohi denez, apalagoak dira, batez ere 50 urtetik gorakoek belaunaldietan. 50 urtetik beherako belaunaldietan euskarazko alfabetatzearen ehunekoa altua da oso gehienak euskaraz eskolatutak izan direlako, eta hortik gora ehuneko hori jaitsiz doa, adinean gora joan ahala, logikoa den moduan.

Bestalde, eta etorkizuneko ezagutzaren bermea denez, euskararen transmisioa ere aipatu beharra dago. Ia salbuespenik gabe, euskaldunek euskara ematen diete beren ondorengoei. Familiaren bidez, hortaz, euskararen transmisioa hutsune handirik gabe gertatzen da, eta ez dago ia galerarik. Eta hizkuntza transmititzeko beste bitarteko garrantzitsuenari dagokionez, irakaskuntzari dagokionez alegia, eskualdeko belaunaldi berriak, ia bere osoan, euskaraz eskolatzen ari dira, ikastetxe publikoetako D ereduaren bitartez. Etxeak eta familiak egin ezin duen kasuetan, beraz, eskolak bermatuko die eskualdeko haur eta gazteei euskararen ezagutza, eta, okerrik gertatu ezean, datozen urteotan belaunaldi berrien euskararen ezagutza ia erabatekoa izanen da.

Euskarazko etxeko transmisioa ia etenik gabe gertatzen ari dela kontuan izanda, eta ikastetxeetan azkeneko urteotan D ereduaren besterik ez dagoela ikusita, biztanleriaren euskararen ezagutzan sumatu den jaitsieraren azalpena ziur asko biztanle berrien etorreran bilatu beharko da, bestela nekez uler bailiteke.

Herrien arteko ezberdintasunen ondorioz egin beharko liratekeen ñabardurak gorabehera, eta azken urteotan itxuraz gertatu den jaitsiera horrek eragiten duen zalantza eta kezka oso kontuan hartzeko modukoa bada ere, ezagutzari buruz ditugun datuak nahikoa onak dira oro har, eta abiapuntu sendo bat eskaintzen dute normalizazioaren ikuspegitik. Erabilerak ezinbestean herritarren ezagutza behar du, eta hori, oraingoan bederen, nahikoa bermatua dago herri gehienetan.

Erabilera

Euskararen erabilera ere indartsua da eskualdeko gunerik euskaldunenetan, eta gaztelaniari nagusitzen zaio herri horietako hainbat espaziotan eta adin-taldetan (hezkuntza, bertako hedabideak, kaleko erabilera, udalen funtzionamendua, aisialdia, kultur eskaintza). Ezin esan gauza bera ezagutza-indize baxuagoa duten herrietan, logikoa den moduan. Horietan, oraingoan, erdara da nagusi bizitza sozialeko esparru guztietan, hezkuntzan edo tokian-tokiko hedabideetan salbu.

Esparru jakin batzuetan, eta eskualde osoa kontuan hartuta, erdarak oso sarbide indartsua dauka. Lan-munduan, esaterako, erdarak presentzia handia dauka, arlo idatziari dagokionez batez ere. Merkataritza munduan ere, euskarak aurrera egin badu eta egiten jarraitzen duen arren, erdarak espazio handia bereganatua dauka. Gaztelania nagusi da, erabat, bertakoak ez diren hedabideetan (egunkariak, telebista-kateak, irratia...), eta baita sare sozialek eta plataforma digitalek osatzen duten eremuan ere, edukiak kanpotik eta urrutitik datozenean batez ere. Azkenik, oro har eskualdean harreman pertsonaletan euskara erdara baino gehiago erabiltzen den arren, bistakoa da euskaldunen arteko eguneroko harremanetan gaztelania ere erabiltzen dela. Erabilerari dagokionez, beraz, euskarak oraindik ere asko dauka irabazteko.

Eman berri dugun azalpen edo deskribaketa orokor horretaz gainera, ez dago eskualde osoko euskararen erabileraz egindako ikerketa espezifikorik edo berriazkorik. Dauden neurketak edo datu bilketak alor edo udalerrri jakinetan

egin izan dira, kale neurketak esate baterako, baina ez dira eskualde osorako aplikagarriak, eta neurketa jakin horietan ateratako datuak ezin dira eskualde osoko irakurketarako bere horretan hartu.

Jarrera

Jarrerari dagokionez ere ez daukagu gure eskualderako egindako ikerketa zehatzik. Herritarren jarreraren azterketa egin izan denean, gure eskualdeak eta udalerrriak beste batzuekin elkartuta edo nahasita agertu dira. Kasu horretan, nolana ere, eta behar den zuhurtziaz bada ere, datu horietatik ateratako ondorioak erabilgarriak direla pentsa genezake. Ondorio horien bitartez, eta hainbeste urtetan zehar Mankomunitatetik bertatik jasotako informazioari eta ezagutzari esker, gure eskualdeko herritarren jarreraren nolabaiteko argazki orokor hau egin dezakegu:

Euskara hizkuntza estimatua eta baloratua da eskualde honetan. Oro har herritarren euskararekiko jarrera ona edo oso ona da, eta inork gutxik dauka euskararen aurkako jarrerarik. Euskarak prestigioa irabazi du aspaldiko urteotan, eta hizkuntza normalizatuari dagokion estatusa erabat lortu duenik esan ez daitekeen arren, bide horretan asko aurreratu duela esan liteke. Euskararen alde eta euskara normalizatzeko bidean hartu diren hainbat erabaki eta egin diren hainbat urrats ongi ulertu dira, eta herritar gehienek babesa lortu dute. Mankomunitateak garatu behar duen hizkuntza politikarentzat ezinbestekoa den herritarren euskararekiko atxikimendua, beraz, gaur egun indarrean dago eta oinarri egokia ematen die euskararen normalizazioaren bidean abiatzen diren ekimenei.

Euskararen estatus ofiziala

1986an Euskararen Legea onartu zenetik euskara hizkuntza ofiziala da gure eskualdean. Mankomunitatea osatzen duten udalerrriak Euskararen Legeak “eskualde euskalduna” deitzen duen horretan kokatuta daude, eta, beraz, euskara ofiziala da bertan. Odieta eskualde mistoan dagoenez, bertan euskara ez da ofiziala.

Euskararen ofizialtasun horren arabera, herriotan egiten den euskarazko edozein jarduerak balio juridiko osoa izanen du. Eta, bestalde, herritarrek administrazioarekiko harremanetan hizkuntza hautatzeko eta hizkuntza horretan atendituak izateko eskubide osoa dute.

Hona hemen Euskararen Legeko zenbait artikulua, hitzez hitz jasoak:

10. artikulua. 1. Herritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

11. artikulua. Erabilitako hizkuntza edozein izanik, administrazio jardura guztiak baliozkoak izanen dira eta legezko eraginkortasun osoa izanen dute. Horren ondorioz, Administrazio Publikoen organoek parte hartzen duten ekintza guztiak, baita administrazio jakinarazpen eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, interesatu guztiek espresuki bakar bat erabiltzea aukeratzen badute izan ezik.

14. artikulua. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beraiek hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.

16. artikulua. Eremu euskalduneko Toki Entitateek euskara erabiliko dute beren xedapen, argitalpen, hiriko kaleen errotulu eta tokien berezko izenetan, beti ere, ohikoak errespetatuz.

Euskara, hortaz, Odietan izan ezik, hizkuntza ofiziala da gurean. Horrek ez du esan nahi, jakina, teorian eta legez duen maila hori praktikan eta egunerokotasunean eskuratu duenik. Ofizialtasunak euskaldunei aitortzen dizkien eskubideak askotan urratzen dira, eta gaurko egunean, legea onartu zenetik 35 urte igaro ondoren, asko eta asko dira, esate baterako, osasun etxean euskaraz atendituak izateko eskubidea urratuta duten herritarrak, Nafarroako Gobernutik mediku, pediatra eta erizain erdaldunak bidaltzen dituztelako.

Udalak dira, oraingoan ere eta aldeak alde, ofizialtasunaren estatusari erantzuten gehien ahalegindu direnak, eta euskara bertako administrazioan gehien txertatu dutenak.